

Zeuk zelan nahi

MAIALEN BERASATEGI CATALÁN

Hitzaurretxo bat, honako zera hau azaltzeko

EIZIEk eta DSS2016EU erakundeak *Shakespeareren 'Ametsa' biziarazten* egitasmoa prestatu zuten 2014ko udazken alde-rako, aprobetxaturik 2016an William Shakespeareren *A Midsummer Night's Dream* obra antzeztuko dutela Donostian, Juan Garzia Garmendiak euskaraturik. Egitasmoaren helburua itzultze-prozesu hori gizarteratu eta eztabaidatzea zen, eta lehen saioa, *Itzultzailearen sukaldea (I)* izenekoa, irail inguruan izan zen, Gasteizko Letren Fakultatean. Han, Idoia Noblek gidatuta, antzezlan sonatu hori *Uda-gau bateko ametsa* bihurtzeko prozesuaz mintzatu zen Garzia bera, argi, jori eta umoretsu, Larraitx Ariznabarreta irakasle eta shakespearezale adituaren esplikazio eta iruzkin jakingarriek lagundurik, parean eserita zeudela askotariko ikus-entzuleak, baina –logikoa denez– fakultateko ikasle gazteak gehienbat.

Egun hartan, Garziarekin, Ariznabarretarekin eta Noblerekkin mahai luze berean

esertzeko ohorea eta ezustea izan nuen. Jarri orduko pentsatu nuen okerreko aulkian nengoela, entzuleen artean nuela neurez lekua, batere ez aspaldi nire etxe ere izan zen fakultate hartako ikasle haiekin guztiekin. Zer nuen nik, izan ere, Shakespeareren gainean esateko? Eta, batez ere, nola hasiko nintzen ni Shakespeare itzultzen?

Bada, egun hartan, Garziak zizt egin zigun denoi, eta antzezlan haren lagin batzuk itzultzerantz tentatu gintuen. Tentaldian bete-betean erorita, horri tiraka piztu zaizkit jolas-gida hala moduzko honetarako hauek, neure buruari ez ezik beste ikasle eta hasiberri eta ez hain hasiberri baina bai uzkurrei ere beldurak uxatu eta ikusarazteko zergatik merezi duen eta zer ederra eta probetxuzkoa izan daitekeen edonorentzat Shakespeare itzultzen saiatzea, asmo handirik gabe eta aldarte onean saiatuz gero behintzat.

Beraz, inor hor nonbait erreparoei eta aurreiritziei jota balego ere, hona hemen jolaserako gonbit ez batere serio bat.

Zergatik jolastu

j) **Ezinkizun bat delako ia.** Eta gauza zail eta ia ezinezkoen bizigarria badelako nahikoa sari. Esaten denez, gauza errazak begiak itxita egiten dira; bada, gauza zailak egiteko, ireki eta zolitu egin behar dira begi-garunak. Zernahi testurekin gabiltzala ere, ezinezkotasunaren erronka ia beti da suspergarria: irakurri ahala gero eta luzatzenago direla ematen duten esaldi erdi ulertezin sintaxi demoniozkoz betetako testu juridiko-administratibo hala moduz josiak itzultzearen alderdirik jostagarriena esaldi erdi ulertezin sintaxi demoniozkoak itzultzea den bezala, Shakespeareren ingeles aspaldikoa, irudi asmamentsuak, erreferentzia kultural, literario eta historiko amaigabeak, zentzu aho biko eta hirukoak, itzulinguru original trinkotuak eta errima eta neurri ezinezkoak –besteak beste– itzultzearen alderdi jostagarrienak ere horiexek berak dira.

o) **Santa sekula ez delako izan orain adina baliabide.** Pentsa zenbat gizakitxo asmo oneko aritu den gaur arte Shakespearerenak paperezko hiztegi gutxi batzuen laguntza xumeaz itzultzen, burua ondo-ondo jantzia izan arren erdi biluzik bezala. Pentsa zer-nolako informazio-unibertsio hedakorra dugun guk klik gutxi batzuetara.

l) **Enpleguetarako eta bestelako lanetarako inbertsio bat delako.** Bai, anker samarra izango da, beharbada, enpleguabeziaren munstroak irentsitako garai honetan enpleguaz eta inbertsioez mintzatzen hastea, baina, jolasa eta ametsa ia bat direnez, eta kontuan harturik badirela enplegu ez diren lanak, pentsa dezagun izango dugula lan nolabaitekoren bat gaur ez bada bihar, eta

Shakespeare itzultzen saiatzea lagungarri izango zaigula ziur, hizkuntz eskolan izena ematea adina, EGLUak eskura edukitzea adina. Jolas hau bai baita errenta.

a) **Gutxitan izaten delako halako ikastaro trinko malgu doakorik.** Azkenaldian gizaki kosmopolita beti (pre)okupatuaren zama arintzeko eskaintzen diren *online* ikastaro horiek baino askeagoa eta malguagoa da jolas hau, erabat norberaren esku baitago noiz eta zenbat eta noraino. Gainera, gehienera ere, denbora pixka bat eta neurona dezente besterik ez dugu gastatuko –pentsa zer-nolako zozokerietan gastatu ohi ditugun denbora eta neuronak batere eragozpenik gabe–, poltsikoa urratzeke, eta trukean jasoko duguna osoro izango da probetxuzkoa: izan ere, gure geure itzulpen-prozesuan bertan ikasiko duguna gutxi ez, eta gero, aukera izango dugu jadanik eginak eta argitaratuak dauden itzulpenekin alderatzeko gure uztatxo, ikusteko zertan asmatu dugun, zertan geratu garen motz eta zertan luze, eta berriz ere ohartzeko zeinen sorkari desberdinak erna daitezkeen hazi beretik.

s) **Ez delako inportantea.** Ez goaz inora. Bide erdian etsita ere, berdin dio. Itzulanean aurrera estropezuka egiten badugu ere –eta halaxe egingo dugu, ziurrenera–, zer axola. Ez digu inork notarik jarriko. Ez dugu behar ohorezko matrikularik. Ez dugu beharrik gure maistratasunaren edo maisutasunaren haizerik puzteko, eta ez dugu epailerik ere; gehienez, izan gaitzen gu geu epaile, baina epaile samur samar, epaile onbera. Geure buruari erakutsi eta irakatsi, hori baino ez dugu egin behar. Jolas honek, jolas guztiek bezalaxe, inportanteak ez diren gauzen garrantzi goren besterik ez du.

Beroketa-lanak

Konbentzitu *gaitur?* Ederki. Bada, hasi aurretik, beroketa- eta luzaketa-ariketa batzuk.

Ezer baino lehen, itzulgaia hautatu behar. Obra askotarikoak idatzi zituen Shakespeare jaunak, gutxi-asko tentagarriak denak, eta batzuek badute beste batzuek baino sona handiagoa, eta prestigioa, eta –barkatuko didazue topikoaren topikoa– erronkari samarrak omen gara euskaldunok, baina, aukeran, seguruenik, hobe izango da sone-toak, adibidez, aurreraxeagorako uztea, eta ekitea, esaterako, uda-gau bateko amets zoro zoragarriarekin, ez itzulgai samur-samurra delako berez, baizik eta igerian ez dakienarentzat komenigarriagoa izaten delako aintzira batean hastea ezen ez itsaso zabal zakar hotz ekaiztsu batean.

Obra hautatuta, bi joeraren artean erabaki behar da segidan –argi dago ez dela hau dudamudatsuentzako lan aproposa–: batzuek, ez baitira funanbulismoan begiak estalita aritzearen oso zale, esaten dute komeni dela lehenago obra osorik irakurtzea, hasieratik bukaerara –kondairak dioenez, bada bukaeratik hasierara leitzea gomendatu duenik ere, baina kondairak beti kondaira–, eta beste batzuek, berriz, esaten dute hobe dela itzuli ahala egitea aurrera, irakurleek berek egingo duten bezala, alde zurreko informazioak ez dezan itzali itzultzailearen txinparta eta freskura eta. Norberak ikusiko du, beraz, seguroen edo espontaneoentaldekoagoa den.

«–Zer ari da irakurtzen berori?

–Hitzak, hitzak, hitzak.»

Bizitzan beste askotan bezala, garrantzitsuagoa izango zaigu kalitatea, kantitatea baino. Izan ere, hitz-gordailu, -biltegi, -kutzak, ahalik eta gehien bainoago, ahalik eta askotarikoenak eta osoenak beharko ditugu: ele biko hiztegiak, ele bakarreko definiziodunak, antzinako ingelesarenak, sinonimoenak, glosarioak, paperezko baliabideak eta digitalak... Internetek, adibidez, Shakespeareri buruzko webgune espezializatu dezente ekarri dizkigu, trinkoak batzuk, dibulgaziokoagoak beste batzuk, eta, horietan, arrasto baliagarriak aurkituko ditugu seguru –esaterako, www.shakespeare-online.com webgune glosarioan–.

Gure jolas honen arau eta jarraibideak ondo-ondo ulertzeko, ezinago baliagarri izango zaizkigu Shakespeareren ospea eta horren ondorioz jaulkitako informazioisuri ia konpultsiboa. Har dezagun arnasa, eta ez gaitzala izutu informazioaren ugariak, leku erosoan gaude eta: dokumentatu egin behar dugu, bai, baina ez tesi bat egin. Ez dugu zertan irakurri Shakespeareri buruzko literatura eta aparatu kritiko amaigabe guztia. Are gehiago –ez zabaldu askorik kontu hau–: irakasleek esanak esan, Wikipediarekin hasteko baimena ere badugu oraingoan. Ingeleseko Wikipediarekin, hori bai; ahal dela.

Irakur dezagun han-hemen idazlearen eta haren idazmolde, estilo, genero, gaien gainean. Irakur ditzagun obraren berraren ingurukoak ere –seguroen taldekoak bagara, bereziki–. Bizitzan alde zurretik bestela leitu dugun guztia ere ez da izango

inondik ere kalterako –kultura klasikoaz dakigun(txo) hori, adibidez–, kontuan harturik zenbat erreferentziarekin egingo dugun topo itzulanean.

«Mundua eszenategi handi bat da eta komedianta hutsak gizon-emakumeak!»

Burua zenbat eta jantziago hobe, mozorroa ondo janzteko. Bai, mozorroa. Kondairak baitio itzultzea mozorrotzea dela: jarri behar dela idazlearen maskara, batetik, eta pertsonaiena, bestetik. Azken batean, ahalik eta gehien inspiratu eta *shakespeareu* behar du itzultzaileak, eta pertsonaien larruan jarri –behar diren astaburu eta lehoi-buru guztiak barne–, obra sinesgarriagoa izan dadin, ahal dela, Snug zurginak-eta egindako antzezlan hala moduzko hori baino.

Komedia bat baldin bada hau guztia, izan gaitezen komedianta.

Ez larritu: ez da hain zaila mozorrotze-kontu hori. Gogoan izan nola txikitan medikutan jolasten ginen, estetoskopio alegiazko erreal askoak lepotik zintzilik; ahaleginik batere egin gabe sinesten genuen suhiltzaile ginela, eta oihaneko tximino, eta guraso, eta Son Goku. Eta zer pertsonaia aukeratu, horretara egokitzen genuen hitz egiteko, mugitzeko, erantzuteko modua. Bada, horixe bera egin behar dugu orain: nola mintzo dira Hermia eta Lysander maiteminduak? Nola maitagarrien errege-erreginak, eta nola Puck bihurria? Nola antzezle xelebreak? Ba al da hizkera jasorik? Eta laurik? Nork hitz egiten du neurritzetan beti, eta nork inoiz ez? Nork darabiltza errimak, eta noiz? Hala-koez zenbat eta gehiago jabetu, orduan eta hobeto mozorrotuko gara, eta orduan eta

gehiago sartuko gara Shakespeareren luma-ren garuntxoaren barruan.

«Eresia ba'da maitetasunaren yaki, ekin yoten, asebate nagizue eresiz»

Orduan helduko zaigu ezaspergarren erabakiak hartzeko garaia. Bata, ea Puck eta Lysander eta Snug eta lehen aipatu ditugun izen horiekin guztiekin zer egingo dugun. Nabarmena denez, doinu arrotz samarra dute izen horiek euskal irakurleentzat, eta han-hemen aurkituko ditugun esamolde, irudi eta erreferentzia batzuk ere, berdin-berdin, berezko ditu ingelesak, baina *beste*zko samar euskarak. Geure esku, beraz, doinu arrotz horiek denak exotiko utzi edo *intratiko* bihurtu edo –beharbada logikoena dena– kasuan-kasuan erabakiz joan.

Eta beste delibero garrantzitsu bat: ea errimek eta neurriari eusten saiatuko garen, eta, baiezkoan, nola. Oso litekeena da orain arte prosa besterik itzuli ez izana; hala bada, itzulpen-lanari neurria eta errimak gehitzea, akaso, kartzela baten barruan beste kartzela bat eraikitzea irudituko zaigu. Baina jolastientzako galdera: zer litzateke txingoan aritzea lurrian harri-puska batekin lauki batzuk zirrimarratu gabe? Edo, nahiago izatera, artistentzako galdera: ez ote du merezi hitzen musika –«eresia»– eta haren zoliak eta grabeak eta perkusioak ahalik eta finen jotzen saiatzea? Edo, lehen bezala, erronkari-entzako erronka: ezetz Shakespeare neurri-errima eta guzti itzuli!

Ez dugu zertan errima kontsonanteekin erotu. Bada euskal errimen sistema oso erabilgarri bat, bertsozaleei ezaguna izango zaiena, baina, hori ere nekezegi gertatuz

gero, ez litzateke txarra errima asonante soilekin saiatzea ere. Are gehiago: bide guztiak urratzen hasita, beste aukera bat da pertsonaia bakoitzari errima-mota jakin bat ematea, jatorrizko errimekin edo pertsonaien mintzaerarekin bat datorrena.

Neurriarekin, berriz, tentuz. Gogoratu ingelesa hizkuntza sintetikoa, trinkotzaila, laburzalea dela, nolabait esateko, eta ez fonetikoki bakarrik. Horregatik, jatorrizko neurriak euskaraz errespetatzea, beharbada, eskua lakio arriskutsu samar batean sartzea izango da. Onena, agian, ingelesezko neurri bakoitzari silaba-muturtxo batzuk gehitzea; eta, ezbairik gabe, arian-arian ikusiko dugu hautatutako neurri horiek edukiontzi egoiak diren edo hitzek gainezka egiten diguten lerro-ertzetatik behera.

Eta, «arian-arian» esan dugunez, beroketak bukatu, eta goazela, goazela behingoz harira.

Hiru, bi, bat...

Badugu taula eta baditugu piezak: orain, bota dadoa, eta aurrera, tipi-tapa. Gogoratu ez dagoela presarik, ez zaizula otsorik azalduko bidean –gehienez ere, maitagarri, iratxo edo sorgin gaixtoren bat–, eta, batez ere, gogoan izan Shakespeare jauna duzula jolaskide –eta ez kontrario–, hots, munduko jolastirik handienetako bat. Egingo dizu keinu begiarekin, zirikatuko zaitu, kontatuko dizkizu gauzarik gertagarrienak modurik inposibleenean, eta, maiz, ez duzu jakingo benetan edo txantxetan ari zaizun, haren pertsonaiaren bat seko ergela den edo, alde-rantziz, listoegia; korapilatuko zaitu zirkunlokioz, hiperbolez, ondo ere ondo ikasaraziko dizu zer den ekibokismoa, eta eramango zaitu bide itxuraz ezbidekoetan barrena.

Baina gainerakoan nola jolastu, maisuak idatzi zuen bezala, zeure esku: *as you like it*, zeuk zelan nahi¹.

1. **Zer nondik:** *Zeuk zelan nahi* Shakespeareren *As You Like It* komediaren euskal izenburua da, Bedita Larrakoetxeak itzulitako bertsioarena. «Zer ari da irakurtzen berori? Hitzak, hitzak, hitzak», berriz, *Hamlet* obran agertzen da, Juan Garziaren itzulpe-nean; «Mundua eszenategi handi bat da eta komedianta hutsak gizon-emakumeak!» ere *As You Like It* obratik hartua dago, baina Xabier Mendigurenen itzulpenetik (*Zeuk nahi duzunez*); eta «Eresia ba'da maitetasunaren yaki, ekin yoten, asebate nagizue eresiz», azkenik, *Twelfth Night* obrako esaldi bat da, Larrakoetxeak euskaratua hori ere (*Amabigarren gaua*).

Resumen

En otoño de 2014, la Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca y el proyecto DSS2016EU pusieron en marcha la iniciativa *Shakespeareren 'Ametsa' biziarazten* (Nueva vida para el *Sueño* de Shakespeare), con motivo de la futura interpretación de la obra *A Midsummer Night's Dream* en San Sebastián, traducida al euskera por Juan Garzia Garmendia. En la primera sesión, que tuvo lugar en la Facultad de Letras de Vitoria, principalmente ante alumnas y alumnos de Traducción, Garzia habló sobre el proceso de traducción de la obra, y propuso, asimismo, que cada cual tratara de elaborar su pequeña versión. “¿Cómo va a empezar una novata a traducir Shakespeare? Y ¿por qué?”, se preguntará la mayoría. Sin embargo, la pregunta que aquí formulamos es: y ¿por qué no? Una lúdica tentación para novatos y retraídas.

Résumé

A l'automne 2014, l'Association des Traducteurs, Correcteurs et Interprètes de Langue Basque, en collaboration avec DSS2016EU (Donostia « Ville européenne de la Culture 2016 ») a mis en marche le projet intitulé *Shakespeareren 'ametsa' biziarazten* (Une nouvelle vie pour le *Songe* de Shakespeare), à l'occasion de la future mise en scène de l'œuvre *A Midsummer Night's Dream* à Donostia, traduite en euskara para Juan Garzia Garmendia. Lors de la première session qui a eu lieu à la faculté de Lettres de Gasteiz avec la présence, principalement, des étudiant(e)s de Traduction, Garzia a expliqué le processus qu'il a suivi pour traduire cette œuvre. Il a également proposé aux participants d'élaborer leur propre version, en traduisant un petit extrait. La question n'a pas tardé à venir : Comment un(e) débutant(e) va-t-il/elle oser traduire Shakespeare ? Et pourquoi ? Cependant, la question que nous posons ici est : Et pourquoi pas ? Tentation ludique pour tout(e) apprenti(e) traducteur ou traductrice.

Abstract

In the fall of 2014, EIZIE and the DSS2016EU project set into motion the “New life for Shakespeare’s *Dream*” initiative, in recognition of the future performance in San Sebastian of *A Midsummer Night's Dream* in a Basque translation by Juan Garzia Garmendia. In the first session, entitled *The Translator's Kitchen (I)*, which took place at the Faculty of Arts in Vitoria primarily before students of translation, Garzia spoke about the process of translating the work, and suggested that they should each try to translate a little of Shakespeare’s work. “How can a novice even begin to translate Shakespeare? And why?” most wondered. Nevertheless, the question we put forward here is: why not? A playful temptation for beginners and the reticent alike.

